# Sektoreari buruzko informazioa

Jarduera ekonomikoa, aztertzeko asmoz, banatu deneko 26 lanbide-arloetako bat da. 2018an, Euskal Autonomi Erkidegorako zenbatetsitako **Barne Produktu Gordina** 76.808.704 mila €-koa da, eta Eraikuntza eta Obra Zibila arloarekin zerikusia duten jardueren zenbatetsitako BPGa 5.161.389 mila €-koa, hau da, guztizkoaren %6,72.

Lanbide-arlo honetan, jarraian adierazten diren **(JESN) Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionaleko** epigrafeetan erregistratutako enpresak edo erakundeak aztertzen dira:

| JARDUERA EKONOMIKOEN SAILKAPEN NAZIONALA (JESN) | |
|---|---|
| 41 | Eraikinen eraikuntza |
| 42 | Ingeniaritza zibila |
| 43 | Eraikuntza espezializatuko jarduerak |
| 71 | Arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; saiakerak eta azterketa teknikoak |

Hona hemen epigrafe horietako bakoitzeko **establezimendu kopurua** EAEn :

| JARDUERAK (JESN) | | ESTABLEZIMENDU KOP. |
|---|---|---|
| 41 | Eraikinen eraikuntza | 3.405 |
| 42 | Ingeniaritza zibila | 314 |
| 43 | Eraikuntza espezializatuko jarduerak | 10.751 |
| 71 | Arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; saiakerak eta azterketa teknikoak | 5.534 |
| | **GUZTIRA** | **20.004** |

Iturria: EUSTAT 2018

Hortaz, jarduera-adarren osotasunean dauden 174.771 enpresa-establezimenduetatik, guztira 20.004 Eraikuntza eta Obra Zibila arloarekin lotutako enpresa-jardueretan aritzen dira, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko establezimenduen %11,4.




# Sektoreari buruzko informazioa

**Establezimenduen tamainari dagokionez**, ikusten da 2018an % 96,3k 10 langile baino gutxiago dituela, % 3,3k 10 eta 50 langile artean eta, azkenik, % 0,4k soilik ditu 50 langile baino gehiago




Gehienek pertsona fisikoaren eta sozietate mugatuaren **forma juridikoa** hartzen dute: % 65,3 eta 25,8, hurrenez hurren. Beste sozietate eta elkarte batzuek % 6,6 biltzen dute (horien artean, sozietate kooperatiboek). % 2,2k sozietate anonimoen forma hartzen du



Sektoreari buruzko informazioa

# Sektoreari buruzko informazioa

**Giza baliabideei dagokienez**, 2018. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan, jarduera honek 5,4 inguru hartzen du guztizko enpleguaren gainean; eta, 2015-2018 aldian, biztanleria okupatuaren urte arteko batez besteko % 1,63ko igoera antzematen da.

Ondorengo taulan, **adinaren eta sexuaren arabera** 2018an kontratuak nola banatu diren ikusten da.

| | JESN 41 | | JESN 42 | | JESN 43 | | JESN 71 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ADIN TARTEA** | **Gizona** | **Emakumea** | **Gizona** | **Emakumea** | **Gizona** | **Emakumea** | **Gizona** | **Emakumea** |
| **< 25** | 473 | 54 | 38 | 11 | 1.416 | 87 | 202 | 74 |
| **25-44** | 4.655 | 443 | 407 | 26 | 8.991 | 473 | 830 | 553 |
| **> 44** | 4.357 | 193 | 384 | 14 | 6.295 | 235 | 293 | 132 |
| **GUZTIRA** | **9.485** | **690** | **829** | **51** | **16.702** | **795** | **1.325** | **759** |

Iturria: Geuk prestatua, INEMek emandako datuetan oinarrituta

# Sektoreari buruzko informazioa

Azkenik, **lurralde-banaketari dagokionez**:

| ÁLAVA-ARABA | | ESTABLEZIMENDU KOP. |
|---|---|---|
| 41 | Eraikinen eraikuntza | 408 |
| 42 | Ingeniaritza zibila | 63 |
| 43 | Eraikuntza espezializatuko jarduerak | 1.344 |
| 71 | Arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; saiakerak eta azterketa teknikoak | 782 |
| | **GUZTIRA** | **2.597** |

| GIPUZKOA | | ESTABLEZIMENDU KOP. |
|---|---|---|
| 41 | Eraikinen eraikuntza | 1.668 |
| 42 | Ingeniaritza zibila | 85 |
| 43 | Eraikuntza espezializatuko jarduerak | 3.053 |
| 71 | Arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; saiakerak eta azterketa teknikoak | 1.922 |
| | **GUZTIRA** | **6.728** |

# Sektoreari buruzko informazioa

| BIZKAIA | | ESTABLEZIMENDU KOP. |
|---|---|---|
| 41 | Eraikinen eraikuntza | 1.329 |
| 42 | Ingeniaritza zibila | 166 |
| 43 | Eraikuntza espezializatuko jarduerak | 6.354 |
| 71 | Arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; saiakerak eta azterketa teknikoak | 2.830 |
| | **GUZTIRA** | **10.679** |

Geuk prestatua, EUSTATen datuetan oinarrituta

